

## Galdera

Nola esan dezakegu ganoraz *argiaren interruptorea*?

## Erantzuna

*argi-giltza / argiaren giltza / etengailua*

1/ Gure iritzian, *argi-giltza* edo *argiaren giltza* termino egokiak dira erregistro neutroan; *etengailu* terminoa, berriz, jasoagoa da eta egokia testuinguru teknikoagoetan. Euskaltzaindiak biak jasotzen ditu, eta Euskalterm datu-base terminologikoak termino normalizatu eta gomendatu jotzen du *etengailu*, izan ere, 4<sup>Eu</sup> ponderazio-marka jartzen dio.

2/ Ikusi hiztegietan:

[argi — Euskaltzaindiaren Hiztegia](#) (15 adieren atzean, 13. azpisarreran)

...

*argi ezkila, argi-ekzila* iz. Egunsentiko kanpai-joaldia. *Argi-ekzilarako elizan izango da hura egunero.*

**argi giltza, argi-giltza** iz. **Etengailua.**

*argi haste, argi-haste* iz. *Ipar. eta Naf.* Egunsentia. *Goizean, argi hasteak ez ditu kolpez hartzen zeruko eremu guztiak. Argi hastean jaikirik. Argi hasteko atera.*

...

[Euskalterm Terminologia Banku Publikoa](#)

**eu etengailu** <sup>(4)</sup> **Eu**

**es** interruptor

**fr** interrupteur

**en** power switch

switch

\* Terminologia-batzordeak ponderazio-markak erabiltzen ditu termino baten egokitasuna nabarmentzeko:

0 Baztertu beharreko terminoa (Terminologia Batzordeak onartzen ez duena)

3 Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

4 Termino behin-behinean normalizatua/gomendatua (Terminologia Batzordearen onespeneraren zain)

4<sup>Eu</sup> Termino normalizatua-gomendatua

[argi-giltza — Elhuyar hiztegiak](#)

argi-giltza - *interruptor*

[interruptor - Elhuyar hiztegiak](#)

etengailu

[interruptor — Labayru Hiztegia](#)

etengailu, argi-giltza, argiaren giltza, interruptore

[interruptor — Adorez](#)

argi-giltza